



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA
2018.09.25

Tolosako Udaletxean, 2018ko irailaren 25ean, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 25 de septiembre de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Kristina Pelaez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Bertaratu ez den zinegotzia:

Ibai Iriarte San Vicente

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

- | | |
|---|--|
| 1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko uztailaren 26ko Ohiko Osoko Bilkurakoa. | 1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 26 de julio de 2018. |
| 2. Tolosan, irabazi asmorik gabeko gazte | 2. Aprobación inicial: modificación de la |



- elkarteen edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru laguntzak emateko ordenantza bereziaren aldaketa: hasierako onspena.
3. Ixitako ekitaldiko fakturen onarpena.
 4. 2018ko diru-laguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena.
 5. Zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko 2019rako Ordenantza Orokorren aldaketen hasierako onarpena.
 6. 2019rako Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketen hasierako onarpena.
 7. 2019rako Trakzio mekanikoko ibilgailuen ordenantzaren aldaketen hasierako onarpena.
 8. 2019rako Hiri izaerako lurren balio gehitzearen ordenantzaren aldaketen hasierako onarpena
 9. 2019rako Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasaren ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena.
 10. 2019rako Jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta aprobetxamendu bereziari dagokion tasaren ordenantzaren aldaketaren hasierako onarpena.
 11. 2019ko prezio publikoen aldaketaren hasierako onarpena.
 12. 5/2018 lege-ingiraren altxaketaren onarpena.
 13. 1768/2018 (11/2018 kreditu gehigarria) eta 1769/2018 (12/2018 kreditu transferentzia) dekretuen jakinarazpena.
 14. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (2018/1.359-
- ordenanza espezifika para la concesión de subvenciones a las asociaciones juveniles sin ánimo de lucro o a jóvenes no asociados/as, en el municipio de Tolosa.
3. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.
 4. Aprobación de la modificación del anexo de subvenciones de 2018.
 5. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza general de gestión y recaudación de los tributos y otros ingresos de derecho publico locales para el año 2019
 6. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza del Impuesto de Bienes Inmuebles para el año 2019.
 7. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica para el año 2019
 8. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza del Impuesto Incremento de Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana para el año 2019.
 9. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza de las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades para el año 2019
 10. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza de las tasas por ocupación del dominio público municipal para el año 2019.
 11. Aprobación inicial de la modificación de los precios públicos para el año 2019.
 12. Aprobación del levantamiento del reparo legal 5/2018
 13. Notificación de los decretos de Alcaldía 1768/2018 (crédito adicional 11/2018) y 1769/2018 (transferencia de crédito 12/2018).
 14. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 de julio al 31 de agosto de 2018 (2018/1.359-



TOLOSAKO
UDALA

2018/1.654).

2018/1.654).

15. EH BILDU taldearen izendapen hauen berri ematea:
Batzorde informatiboetako ordezkariak eta ordezkioak.

15. Notificación de los siguientes nombramientos de EH BILDU:
Representantes de las comisiones informativas y sus suplentes.

16. Galderak eta eskaerak.

16. Ruegos y preguntas.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko uztailaren 26ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.

1. -Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 26 de julio de 2018.

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.

2. Tolosan, irabazi asmorik gabeko gazte elkarten edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru-laguntzak emateko ordenantza bereziaren aldaketa: hasierako onespena.

2. Aprobación inicial: modificación de la ordenanza específica para la concesión de subvenciones a las asociaciones juveniles sin ánimo de lucro o a jóvenes no asociados/as, en el municipio de Tolosa.

Partehartzeak:

Alkatea: "Puntu honek harremana dauka gai zerredako hamabigarren gaiarekin. Gazte informazio programaren barruan informazio gunea kudeatzeko gazteen eskeintzen zaizkion beka horiekin. Prozedurari dagokion gaia da eta ordenantza egokitu egin behar da. Beraz proposatzen dena da ordenantzaren aldaketa gauzatzea eman behar diren diru-laguntza horiek legez eman ahal izateko. Txosten juridikoa banatu da, bertan esaten da berariezko eskumena duela Udalak, baita diru-laguntza emateko ahalmena ere eta gardentasun irizpideak bete behar direla. Orduan, gaur emango genioke ordenantzari hasierako onespena, informazio publikoan egongo da 30 egunetan eta erreklamazioak ez badaude behin betikoz onartuko dira."

KULTURA, FESTAK ETA GAZTERIA BATZORDE INFORMATIBOAREN 2018KO IRAILAREN 19KO IRIZPENA.



TOLOSAKO
UDALA

AURREKARIAK

Gazteriako udal teknikariak, 2018ko irailaren 19an proposamena egin zuen, Tolosako udalerriko irabazi asmorik gabeko gazte elkartu eta elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru laguntzak norgehiagoka-araubidez emateko ordenantza berezia aldatzeko.

Izan ere, Tolosako gazteria politiken ildo estrategikoen artean, informazio-zerbitzua programa estrukturaletako bat da, aisialdi hezitzailea, sustapena eta autonomia eta emantzipazioarekin batera. Zerbitzuaren barruan, informazio-bulegoa eta gazte informazio guneak daude; gune horiek laguntza jasotzen dute deialdi bidez eta gazteen informazioz elikatzen dira. Beraz, araubidean barneratu behar dira.

Horretarako, aipatutako Ordenantza aldatu egin behar da laguntza hauek bideratzeko .

Aldaketak txosten teknikoan jasota daudenak dira.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.- Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena

Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- 1- Udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- 2- Udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- 3- Udalen eskumenen egikaritza ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikarituko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua m) atalak udalek, besteak beste, "kultura bultzatzeko ekintzak".



Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 20. atalean, "kultur jarduerak" buruzko politikak sustatzea, hain zuzen ere. 36. apartaduan ere, "gazteri politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea".

2.- Udalaren sustapen-neurriak eta diru laguntzak

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. eta hurrengo artikuluek udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko bi araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
2. Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua.

Herri Administrazioen diru laguntzak arautzen dituen Legearen 9.2 artikulua, diru-laguntzak eman aurretik, haien emakida arautzen duen oinarri arautzaileak onartzearen beharra xedatzen du. Aipatu artikulua 3. atalak, oinarrien publikitatea arautzen du, dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direlarik. Kasu honetan, oinarri arautzaile hauek dagokien Ordenantzan jaso dira.

Oinarrien gutxienezko edukia Legearen 17.3 artikuluan arautzen da:

3. *La norma reguladora de las bases de concesión de las subvenciones concretará, como mínimo, los siguientes extremos:*

- a) Definición del objeto de la subvención.*
- b) Requisitos que deberán reunir los beneficiarios para la obtención de la subvención, y, en su caso, los miembros de las entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 11 de esta ley, y forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes.*
- c) Condiciones de solvencia y eficacia que hayan de reunir las personas jurídicas a las que se refiere el apartado 2 del artículo 12 de esta ley.*
- d) Procedimiento de concesión de la subvención.*
- e) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.*
- f) Cuantía individualizada de la subvención o criterios para su determinación.*
- g) Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención y el plazo en que será notificada la resolución.*
- h) Determinación, en su caso, de los libros y registros contables específicos para garantizar la adecuada justificación de la subvención.*



- j) Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario o de la entidad colaboradora, en su caso, del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.*
- j) Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.*
- k) Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta, así como el régimen de garantías que, en su caso, deberán aportar los beneficiarios.*
- l) Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.*
- m) Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.*
- n) Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones. Estos criterios resultarán de aplicación para determinar la cantidad que finalmente haya de percibir el beneficiario o, en su caso, el importe a reintegrar, y deberán responder al principio de proporcionalidad.*

Azkenik, Gardentasuna, Informazio Publikoa Eskuratzea eta Gobernu arautzen dituen abenduaren 19ko 9/2013 Legearen 8. artikulua Diru laguntzen Lege Orokorren araudia aldatu du, informazio-esparrua zabaldu duelarik. Era honetan:

Artículo 8 Información económica, presupuestaria y estadística

1. Los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de este título deberán hacer pública, como mínimo, la información relativa a los actos de gestión administrativa con repercusión económica o presupuestaria que se indican a continuación:

- c) Las subvenciones y ayudas públicas concedidas con indicación de su importe, objetivo o finalidad y beneficiarios.*

Beraz, udalak argitaratu beharko ditu Gardentasunaren Atarian (*Gipuzkoa Irekian*) ordenantza honetan oinarrituta ematen duen diru laguntzen zerrenda, beti ere onuradunen izaera pertsonaleko datuen erreserbari buruz Legerian araututakoa kontutan hartuz.

3.- Ordenantzaren izapidetzea

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 49. artikuluan xedatzen du Ordenantzak onartzeko jardunbidea, ondokoaren arabera:

- Hasierako onespena, Plenoari dagokiona, aipatu Legearen 22.2.d) artikuluan araututakoaren arabera.



TOLOSAKO
UDALA

- Informazio publikoa eta interesatuen entzunaldiko epea, 30 lanegunekoa, erreklamazio eta iradokizunak aurkez daitezzen.
- Aurkezturiko alegazioak ebatzi eta ordenantzaren behin betiko testua onartzea, udalbatza plenoari dagokiona.
- Informazio publikoko epea iragan eta inolako erreklamaziorik ez balitz aurkeztuko, ordenantza behin betikotzat onartua emango da.

4.- Organo eskuduna

Goian aipatu den moduan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, "Tolosan, irabazi-asmorik gabeko gazte elkarten edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru-laguntzak emateko ordenantza bereziaren" aldaketen hasierako onespena udalbatzaren plenoaren eskumena da.

Beraz, proposatzen da:

LEHENA.- Tolosan, irabazi-asmorik gabeko gazte elkarten edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru-laguntzak emateko ordenantza bereziaren ALDAKETARI HASIERAKO ONARPENEA EMATEA. Aldatzen diren artikulua txosten teknikoak azaldutakoak dira.

BIGARRENA.- Ordenantza hauen aldaketak eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ahal ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Tolosako Udalaren web orrian argitaratzea.

LAUGARRENA.- Xedatzea epe horretan ez badago alegaziorik behin betiko onartuta daudela ulertuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpenera** eman dio, Tolosan, irabazi-asmorik gabeko gazte elkarten edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru-laguntzak emateko ordenantza bereziaren aldaketari.



3. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena. 3. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.

Partehartzeak:

Alkatea: "Lau faktura hauek 2017ko data daukate bat izan ezik, 2016ko urteko bukaerakoa dena. Faktura hauek aurtengo ekitaldian ordaindu ahal izateko osoko bilkuratik pasa behar dira. Ohikoak dira. Ez dago aipatzeko ezer berezirik."

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO IRAILAREN 19KO IRIZPENA.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldian jaso dira, baina 2017ko ekitaldiko faktura data dute.

FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2017-12-30	0500.220.00.230.00	GRAFICAS IBARRA	120	ONGIZARTE TXARTELAK 2 AURPEGI-HENDIDOA	329,87 €
2016-09-13	0300.211.01.920.30	GOENA, S.L.	1738	ERAIKIN ADMINISTRATIBOAN LANAK	195,77 €
2017-10-22	0500.221.99.231.00	CHC ENERGIA	1CSN171000111858	LETXUGA KALEA 4-4. ETXEBIZITZAREN KONTSUMOA	2,84 €
2017-12-26	0500.221.99.231.00	CHC ENERGIA	1CSN171200014636	LETXUGA KALEA 4-4. ETXEBIZITZAREN KONTSUMOA	33,95 €

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2017ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2018ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.



TOLOSAKO
UDALA

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu ditu** itxitako ekitaldiko fakturak.

4. 2018ko diru-laguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena. **4. Aprobación de la modificación del anexo de subvenciones de 2018.**

Partehartzeak:

...Alkatea: *"Puntu honek gaizerrendako 13. puntuarekin lotuta dihoa eta honen azalpenak Begoña Tolosa Mendia zinegotziak emango ditu."*

...Begoña Tolosa Mendia (Ogasun batzordeko lehendakaria): *"Alkateak esan duen bezala, puntu hau 13. puntuarekin, kreditu gehigarriekin, lotuta dago. Ematen diren kreditu ezberdinek lotuta daude diru-laguntzarekin eta horrek dakar eranskina aldatzea. Eranskina aldatzen da, alde batetik, Euskara departamentutik lau bat eskaera izan ditugulako, non hemen egiten duguna da, hemendik kanpo euskera ikasten dituztenei ematen zaizkien diru-laguntzak, eskatzen dute 3.000 euro gehiago ezartzea aurreikusita genuenarekin iristen ez delako. Bestalde, beste dirulero bat dago, errotuloak euskaratzeko. Agortu egin da dagoeneko eta eskatzen da beste 2.000 euro ezartzea. Beste batetik, Bertsozale elkarteak eta errefortzu ikastetxeetan ematen dugun dirua. Kasu honetan Herrikide ikastetxeari, Laskorain ikastolari eta Orixe ikastetxeari ematen zaion diru-laguntza errefortzu ikastetxeetan jartzen dugun partida banatuta zegoen bi aurrekontuetan. Orain arte egiten zen 2018. urtean zati bat eta bestea 2019. urtean. Departamentuaren aldetik ikusten genuen egokiagoa zela hitzarmen sinatzen denean beraiek edukitzea jada partida osoa edo diru osoa aseguratuta. Aurten horretarako nolabait 2018-2019. urteko ikasturteko partidarekin egiten duguna da elikatu. Kasu honetan Bertsozale Elkarteak 28.000 euro, gutxi-gora behera eta errefortzu ikasteetxean 12.798 euro. Ematen den beste aldaketa da Hiltegiko Mankomunitatean. Aurreikusita zegoen kopurua oraindik mankomunitatean onartu gabe zegoelako gastua baina guk aurreikusitakoarekin ez zen iristen. Jarri dugu behar zena eta honek suposatzen du eranskina aldatzea. Honetaz aparte, beste puntu bat dago batzordean komentatu genuena. Kultura departamentutik iritsitakoa. Aurreikusita genuen ekimena bigarren kapitulutik laura pasa zen eta Ogasun batzordea egin genuen akatsa izan zen lehiaketaren edo konpetentzi lehiakorraren bitartez jarri genuen baina, kasu honetan, 2.500 euro horiek ziren Erasmus proiektua garatzeko, monitorei edo begiraleei ordaintzeko. Hau izango zen izenduna. Hauek dira proposatzen ditugun aldaketak."*



OGASUN BATZORDEAREN 2018KO IRAILAREN 19KO IRIZPENA.

2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena aztertu zaie batzordekideei:

Honela geratzen dira aldatzen diren puntuak:

TRANSFERENTZI ARRUNTEN ZERRENDA 2018

Partida	Onuraduna		Helburua	Aurrekontu a 2018	Tipoa
	CIF	IZENA			
0700.421.01.431.40	P20000081	HILTEGIKO MANKOMUNITATEA	Hiltegia	11.396,00	izenduna
0900.481.01.335.10		ENPRESAK	Erabilera lan munduan	9.000,00	Kompetentzi lehiakorra
0900.481.01.335.10	R2000204D	HERRIKIDE IKASTETXEA	Etorkinen euskalduntzea	11.376,00	izenduna
0900.481.01.335.10	F20098307	LASKORAIN IKASTOLA	Etorkinen euskalduntzea	11.376,00	izenduna
0900.481.01.335.10	S4833001C	ORIXE IKASTETXEA	Etorkinen euskalduntzea	11.376,00	izenduna
0900.481.01.335.10		FAMILIAK	Kanpoko euskara ikasleak	8.000,00	Kompetentzi lehiakorra
0900.481.01.335.10	G20461190	GIPUZKOAKO BERTSOZALE EL	Ahozketasuna eta bertsoaritzza	56.600,00	izenduna
0800.481.01.337.20	F20471207	HORBEL SCOOP	Erasmus plus	2.500,00	izenduna

Hori guztia ikusirik, bertaratutako guztien aldeko botoarekin, ondorengo diktaminatu da:

- Begoña Tolosa (EAJ),: Aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Patxi Amantegi (EAJ), Jokin Azkueren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu): Aldeko botoa
- Lore Agirre (EH Bildu): Aldeko botoa

Aurreko guztia kontuan izanda, honako hau proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udaltzaren Osoko Bilkurari:

Lehena.- Osoko Bilkurak 2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzea goian aipatutako aldaketekin.

Bigarrena.- 2018ko diru-laguntzen eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.



TOLOSAKO
UDALA

Osoko Bilkurako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzea.

- | | |
|--|---|
| <p>5. <u>Zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko 2019rako Ordenantza Orokorren aldaketan hasierako onarpena.</u></p> | <p>5. <u>Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza general de gestión y recaudación de los tributos y otros ingresos de derecho público locales para el año 2019</u></p> |
|--|---|

Bosgarren puntutik hamaikarren gaien azalpena eta eztabaida bateratua egin da. Honako hauek izan dira partehartzeak:

- ... Begoña Tolosa Mendia (Ogasun batzordeburua): *“Hauek dira Ogasun batzordetik proposatzen dire aldatetak: 5. puntuan, Ordenantza orokorrari dagokionez proposamena da 2000 euroko gorako zorretan Ogasuneko informazioa fiskala bakarrik eskatzea pertsona fisikoei eta helbideratutako erreziboen data taula eguneratzea. 6. puntuan, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga, IBI bezala ezagutzen duguna, proposatzen da erriziboa igotzea Hego Euskalerriko KPIa, abuztuko datua iralaren 12an argitaratu zena, hau da %2,25a. Kasu honetan, erreziboaren kuota jartzeko jakin behar dugu etxearen zerga oinarria edo balio katastrala eta gero guk horri aplikatzen diogu Tolosan daukagun tipoa eta balio katastrala Gipuzkoa Foru Aldunditik emandakoa. Balio hori ez daukagunez, gure proposamena da onartzea erreziboa igotzea %2,25a eta balio kastastrala iristen zaigunean Tolosan aplikatzen dugun tipo erreziboaren igoera %2,25ekoa izateko. Bestalde, atal honetan Hirukide elkartetik iritsi zaizkigun bi proposamen daude. Joan den urtean jada onartu genuen eta aurten egiten dugutena da beste bi proposamen: famili ugarietan balio katastral maximoa igotzea 100.000eurotik 150.000 eurotara eta kategori bereziko famili ugarietan 200.000 eurotara. Onuragarria dela iruditzen zaigu hau aplikatzea. Zazpigarren puntua, Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga. Gure proposamena da zergaren taula, %2,25a igotzea. Horretaz aparte, gaur egun %95eko hobaria dute motor elektrikoak duten kotxeak hobaria eskatzen dutenetik kotxeari baja eman arte eta proposatzen da epea mugatzea matrikulazio egunetik hasita 2 urtez. Baita hibridoetan ere.*

Bestalde, Hiri izaerako lurren balio gehitzea, plusbalia. Zerga tipoa %2,25 igotzea eskatzen da. Bederatzigarren puntuan, Zerbitzu publikoak eskaini eta jardueran



burutzeagatik tasa guztiak igotzea %2,25 proposatzen da hondakinen tasa izan ezik. Kasu honetan urtero bezala proposatzen da %5a igotzea, ea lortzen dugun gastuak eta sarrerak parekideak izatea edo behintzat orekatuagoak. Beste proposamena da 2.2.1. eranskinean, dokumentu administratiboa atalean, jartzea hurrengo bi esaldi: "Zirkua jartzeko baimen espedientea tramitzeazteagatik baldin eta berekin ez badar beste udal tasaren baten sortzapenik, 286€ kobratzea". Izan ere, zirkua dauka jartzea jabari publiko baten gain edo jabari publikoa ez den batean gain. Orain arte aurreikusita zegoen ordaintzea jabari publiko batean gain aurkitzen zenean eta ez espazio publiko ez den batean jartzen zenean. Honekin egingo zutena zen ordaindu kuota hau baino ez zuten ordaindu behar bestea. Hamargarren puntuan, Jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta aprobetxamendua bereziren tasan %2, 25eko igoera proposatzen da. Hemen proposatzen da ere, Zezen plaza okupatzeagatik 100€, balio sinbolikoa jartzea. Hamaikagarren puntua, prezio publikoa. 2,25eko igoera proposatzen da eta prezio publikoan barruan 3.1.1. zenbati udal zerbitzu jartzea honako hau: "Prezio publiko hau ordaindu beharrik ez dutenak: onura publikotzat jotako fundazio eta elkarteak nahiz interes orokorreko helburuak lortu asmo dituzten gainerako entitateak, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren edo Tolosako Udalaren erroldetan hala ageri badira, edo ikastetxe publikoek edo hezkuntza itunetara bildutako ikastetxe pribatuenak udal jabariaren erabilera partikularra edo aprobetxamendu berezia egiteagatik baltzuren xedeari dagokion ekintzaren bat egiteko." Bestalde, baita ere, Txuletaren Festaren otorduaren barruan jartzea honako hau: "Txuleta Festako bazkari eta afarien prezio publikoa ordaindu behar da eskatutako zerbitzu bakoitzagatik. Prezio publiko horren sortzapena txartela erosten den momentuan bertan gertatzen da. Dagokion zenbatekoa ez da inondik inora itzuliko." Hau da guk ekartzen duguna departamentutik eta Ogasu batzordean diktaminatu lbatzak onartzeko."

...Lore Agirre Zipitria (EHBildu) "Aritu ginen batzordean, KPIa dela proposatzen duzuen eta beste zenbait aldaketa tekniko urtez urte suertatzen direnak salbuespen gisa eta zuk aipatu duzun bezala urteko hondakina biltzeko tasari dagokion %5eko igoera. Iruditzen zaigu eta azkenean gaurkoan ordenantzak onartzen ari garen honetan udalaren diru sarrerak ordenantza hauen ondorioa direla kontutan izanik, arduraz jokatu noski aldeko bozka emango diogu ordenantza hauei. Aurreko legealdian sistema gora sistema behera eztabaida mahaia jartzen zen eta kontrako bozka ematen zenieten, gure ustez, zentzurik ez zeukaten gaiaren loturengatik. Baina esandakoa, arduraz jokatzeko tokatzen zaigu. Ordenantza hauei diru sarreren ondorio baitira, aldeko bozka ematea. Bide batez, eta gaia ere atera dudanez pentsatzen dut hurrengo Ingurumen batzordean hondakin bilketako sistema inguruko informazioa eta egoeraren berri izango dugula, izan ere aspaldian informazio gabe gaude eta."



OGASUN BATZORDEAREN 2018KO IRAILAREN 19KO IRIZPENA.

2019 urterako Tolosako Udaleko Ordenantza Orokorra aldatzea diktaminatu da, hain zuzen, zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko ordenantza.

Aldaketa nagusiak:

- Ordainketa atzeratzearen kasuan, 2.000 euroko zorretan ogasuneko informazio fiskala eskatzen da. Pertsona fisikoei bakarrik eskatzea diktaminatzen da.
- Taulak eguneratzea diktaminatzen da

I. ERANSKINA

KONTZEPTUA CONCEPTO	ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA PLAZO DE PAGO VOLUNTARIO	HELBIDERATUTAKO ERREZIBOAK COBRO DE RECIBOS DOMICILIADOS
<p>Urtean behin ordaintzen diren zergak</p> <p><u>Tributos de periodicidad anual</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Ibilgailuen zerga - <i>Impuesto sobre vehículos</i> - Ondasun higiezinaren zerga - <i>Impuesto sobre Bienes Inmuebles</i> - Jarduera ekonomikoen zerga - <i>Impuesto s/ Actividades Económicas</i> - Zaborren tasa . - <i>Tasa de Basuras</i> - Ibilgailuen sarbide eta pasabideen tasa <ul style="list-style-type: none"> • <i>Tasa de entrada vehículos y vados</i> -Kutxazain automatikoen tasa <ul style="list-style-type: none"> • <i>Tasa de cajero automático</i> - <i>Belena patioa</i> - <i>Terrazas</i> - <i>Autotaxis</i> 	<p>Martxoak 1- Apirilak 15 1 de Marzo -15 de Abril</p> <p>Maiatzak 15- Ekainak 30 15 de Mayo – 30 de Junio</p> <p>Urriak 1 – Azaroak 10 1 de Octubre – 10 de Noviembre</p> <p>Tarifa fikoa: Ekainak 1 – Uztailak 7 1 de Junio – 7 de Julio</p> <p>Ekainak 1 – Uztailak 7 1 de Junio – 7 de Julio</p> <p>Ekainak 1 – Uztailak 7 1 de Junio – 7 de Julio</p>	<p>Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario</p> <p>Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario</p> <p>Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario</p> <p>Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario</p> <p>Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario</p> <p>Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario</p> <p>Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario</p>



KONTZEPTUA CONCEPTO	ALDIA PERIODO	ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA PLAZO DE PAGO VOLUNTARIO	HELBIDERATUTAKO ERREZIBOAK COBRO DE RECIBOS DOMICILIADOS
Hilean behin ordaintzen diren zergak <u>Tributos de periodicidad mensual</u> - Etxez etxeko laguntza - Asistencia domiciliaria	Hilean behin <i>Mensual</i>	Hurrengo hileko 2. astea <i>2ª semana del mes siguiente</i>	Borondatezko epearen azken egunean <i>Último día del periodo voluntario</i>

- 1.1 *Ordaintzeko borondatezko epearen azken eguna edo ordaintzeta helbideratuta egiteko eguna baliogabea izanez gero, hurrengo egun baliadunera luzatuko da.
En el caso de que el último día del periodo voluntario o el día de cobro por domiciliación sea inhábil se trasladará dicha fecha al siguiente día hábil
Aparteko gorabeherarik izanez gero, Alkateak borondatezko epealdian ordaintzeko epea luza dezake.
Por circunstancias extraordinarias el Alcalde podrá ampliar el plazo de pago en periodo voluntario.*

- 1.2 *Ondorengo salbuespen eta hobarien eskaeren epeak honakoak dira:
Se establecen los plazos de solicitud de las siguientes exenciones y bonificaciones:*

KONTZEPTUA CONCEPTO	ESKAERA EPEA PLAZO DE SOLICITUD
Ondasun higiezin zerga. Familia ugariaren hobaria <i>Impuesto Bienes Inmuebles. Bonificación familias numerosas</i> Ibilgailuen zerga. Bonificaciones vehículos históricos Bonificación vehículos de motor eléctrico. Bonificación familias numerosas Bonificación vehículos híbridos Zaborren tasa. Hobariak. <i>Tasa de recogida de basuras. Bonificaciones</i>	Urtarrilak 1- Otsailak 15 <i>1 de enero - 15 de febrero</i>

II. ERANSKINA

Atzeratzeko edo zatikatzeko, gehieneko epea eta aurkeztu beharreko bermeak eta diru aurrerakinak honakoak dira:

En caso de aplazamiento o fraccionamiento, el plazo máximo a conceder así como las garantías y anticipos a aportar son los siguientes:



	BERMEA GARANTÍA	GEHIENKO EPEA PLAZO MÁXIMO	AURRERAPENA ANTICIPO
< 150 €	Ez/No	Ez/No	Ez/No
150 – 400 €	Ez/No	3 hilabete/3 meses	Ez/No
400- 2.000 €	Ez/No	6 hilabete/6 meses	Ez/No
2.000 – 6.000 €	Ez/No	Urtebete/1 año	Ez/No
6.000 – 12.000 €	Banku abala/Aval bancario(*)	Urtebete/1 año	Ez/No
12.000 -30.000 €	Banku abala/Aval bancario(*)	2 urte/ 2 años	Zenbatekoaren %20/ 20 % del importe
30.000 -100.000 €	Banku abala/Aval bancario(*)	Gobernu Batzordearen erabakia	Zenbatekoaren %20/ 20 % del importe
> 100.000 €	Banku abala/Aval bancario (*)	Gobernu Batzordearen erabakia	Zenbatekoaren %20/ 20 % del importe

Pertsona fisikoek, 2.000 eurotik gorako zorretan, Ogasuneko Informazio Fiskala aurkeztu beharko dute.

Las personas físicas, en deudas superiores a 2.000 euros, tendrán que presentar la Información Fiscal de Hacienda.

(*) 9.7 artikulua

Aldaketa hauek aztertu ondoren, honela bozkatu da:

- Begoña Tolosa (EAJ),: Aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Patxi Amantegi (EAJ), Jokin Azkueren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu): abstentzioa
- Lore Agirre (EH Bildu): abstentzioa

Aurreko guztia kontuan izanda, honako hau proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udaltzaren Osoko Bilkurari:

LEHENEA.-Goian aipatzen diren aldaketak onartzea.

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten.



TOLOSAKO
UDALA

Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Osoko Bilkurako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena eman dio** zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko 2019rako Ordenantza Orokorren aldaketari.

6. 2019rako Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ordenantzaren aldaketan hasierako onarpena. 6. Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza del Impuesto de Bienes Inmuebles para el año 2019.

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO IRAILAREN 19KO IRIZPENA.

2019 urterako Tolosako Udaleko Ondasun Higiezin gaineko Zergaren ordenantza aldatzeko ondorengo proposamenak egin dira.

Zerga tipoei dagokienez, diktaminatu da haiek ezartzea, 2018ko erroldak % 2,25eko igoera izateko moduan. Hau da, 2018ko erroldatik, KPlak aplikatzea.

Era berean, Hirukide elkarteak hala eskatuta, familia ugariei hobaria aplikatzeko dagoen balio katastral maximo igotzea diktaminatzen da: 100.000 eurotik 150.000 eurotara (arruntak) eta 200.000 eurotara (bereziak).

Aldaketa hauek aztertu ondoren, honela bozkatu da:

- Begoña Tolosa (EAJ),: Aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Patxi Amantegi (EAJ), Jokin Azkueren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu): abstentzioa
- Lore Agirre (EH Bildu): abstentzioa



TOLOSAKO
UDALA

•

Aurreko guztia kontuan izanda, honako hau proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udaltzaren Osoko Bilkurari:

LEHENA.-Goian aipatzen diren aldaketak onartzea.

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Prezio publiko hau ordaindu beharrik ez dutenak: onura publikokotzat jotako fundazio eta elkarteak nahiz interes orokorreko helburuak lortu asmo dituzten gainerako entitateak, baldin eta Eusko Jauriaritzaren edo Tolosako Udalaren erroldetan hala ageri badira, edo ikastetxe publikoek edo hezkuntza itunetara bildutako ikastetxe pribatuenak udal jabariaren erabilera partikularra edo aprobetxamendu berezia egiteagatik baltzuaren xedeari dagokion ekintzaren bat egiteko.

Prezioak % 2,25eko igoera izatea diktaminatu da.

ZENBAIT UDAL ZERBITZU	EUROAK 2018	EUROAK 2019
A) MATERIALAK		
A.1 Hesi metalikoak; hesiko eta eguneko (3.40*2)	2,70	2,75
A.2 Hesi metalikoak, hesiko eta eguneko (2*1)	2,70	2,75
A.3 Taulatuak; m ² ko eta eguneko (2,5*3)	9,10	9,30
A.4. Mahaiak bi astorekin(2,50*080)	4,75	4,85
A.5. Sukaldea, eguneko	4,20	4,30
A.6. Buruhandiak, eguneko	5,30	5,40
A.7. Danborra, eguneko	5,30	5,40
A.8. Kaioila, eguneko	1,60	1,65
A.9. Panel txuriak, eguneko	2,15	2,20
A.10 Aulkiak; aleko eta eguneko	0,40	0,40
A.11. Karpa txikia, aleko eta eguneko	40,05	40,95
A.12 Karpa handia, moduloko eta eguneko	62,00	63,40
A.13. Eszenatokia	206,75	211,40
B) MAKINERIA ETA IBILGAILUAK		
B.1 Kamioi saskiduna orduko edo zatikiko	111,60	114,10
B.2 Beste kamioiak orduko edo zatikiko	96,25	98,40
B.3 Makineria oro har (dumper, zanpatzeko makina, etab.).Udalarekin zehazteko.		
C) PERTSONALA		
C.1. Gidaria, ordu bakoitza	42,50	43,45
C.2. Laguntzailea, ordu bakoitza	39,35	40,25



TOLOSAKO
UDALA

3.1.3. Txuleta festaren otordua

Ondorengo jartzea diktaminatu da:

Txuleta Festako bazkari eta afarien prezio publikoa ordaindu behar da eskatutako zerbitzu bakoitzagatik. Prezio publiko horren sortzapena txartela erosten den momentuan bertan gertatzen da. Dagokion zenbatekoa ez da inondik inora itzuliko.

Aldaketa hauek aztertu ondoren, honela bozkatu da:

- Begoña Tolosa (EAJ),: Aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Patxi Amantegi (EAJ), Jokin Azkueren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu): abstentzioa
- Lore Agirre (EH Bildu): abstentzioa

Aurreko guztia kontuan izanda, honako hau proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

LEHENEA.-Goian aipatzen diren aldaketak onartzea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamaziorik ez badago 2019ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **hasierako onarpena eman dio** 2019ko prezio publikoen aldaketari.



12. 5/2018 lege-ingiraren altxaketaren onarpena. **12. Aprobación del levantamiento del reparo legal 5/2018.**

Partehartzeak:

- ... Alkatea: *Lehen esan dudan bezala puntu honek lotura dauka gai zerrendako bigarren puntuan onartu dugun ordenantza aldaketarekin. Legezkotasun kontrolaren ikuspegitik egindako ingera da, prozedurari dagokio. Erreferentzia egiten dio lehen aipatu dudan bezala, Gazte Informazio Programaren barruan informazio antenari dagokiona. Programa honen helburua da gazteentzat intereagarria izan daitekeen informazioa zabaltzea. Iraupena da ikasturtea, hau da, 2017. urteko irailetik 2018. urteko ekainera bitartera dihoana. Aurrekontua 3.200 €takoa da eta tramitatu da 2017-2018 ikasturtea ohiko eran, hau da, bigarren kapituluan jasota zegoen eta ohartarazpenak markatzen du laugarren kapituan jasota egon behar duela ez delako kontratu bat baizik eta diru-laguntza edo beka bat delako. 2017. urtean ez zegoen krediturik habilitatuta beti habilitatzen zelako ikasturte amaieraren aldera, hau da bigarrengo urte natural horretan. Zuzentzeko neurriak hartu dira ordenatzaren aldaketa horrekin. Modu guztietara 2017 eta 2018 ekitaldi horretan egindako lana teknikariaren txostenaren bidez egikaritu da, hau da, informazioa eman da eta, gainera, onuradunak bete dituzte bere baldintzak. Orduan, lege ingera altxaketa honekin proosatzen da ordainketa egin ahal izatea.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Komentatu bakarrik hau puntu zaila izan da adostasuna lortzeko eta eskatu nahiko nukeela denok egin dugun ahalegina puntu hau ondorio on batera ematera eta desblokeatzea iristeko. Iruditzen zaigu lortu den adostasun horretan guztien kezkak eta guztien ikuspegiak islatzen direla eta ekar dezakela bide bat antzeko gaiak sortzen direnean desblokeatzeko.”*

Lehenik Udal kontuhartzailearen eta Idazkariaren txostenak azaldu zaizkie Udalbatzarkideei.

KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA

“Gaia: “GAZTE INFORMAZIO PROGRAMA. INFORMAZIO ANTENAK”

A) AURREKARIAK

2018ko uztailaren 2ko datarekin, kontratu txiki bat hasteko proposamena aurkezten da Kontuhartzailtzan xede hau duena: “Gazte Informazio Guneak kudeatzeko gazteei



TOLOSAKO
UDALA

bekak ematea, "informazio programa"-ren barruan 3.200,00 €-koa aurrekontu-partida honen kontra 2018 0800.226.06.337.20.

Eskaera honi erantzen da hautatuen zerrenda haien datuekin eta proposatzen da ordainketa batzuk egitea.

Lehenengo berria denez, Kultura, Festak eta Gazteriako departamentuari informazio gehiago eskatzen zaio eta Gazteriako Udal Teknikariak txosten bat egiten du.

Ikusita proposamen honek dauzkan gorabeherak, Udal honetako kontu-hartzaileak txosten hau egin du,

Beraz

- Sinatzen duenak uste du ezin dela II. Kapitulari egotz dakioken kontratu txiki bezala ulertu, egokiagoa dela diru-laguntzen IV. Kapitulari gastu bezala ulertzea beka batzuk direlako.

- Beka horiek emateko ez dagoelako organo eskudunak onartutako oinarririk eta ez delako gastu hori onartzen duen espedienterik tramitatu.

- 2017ko azaroaren 15eko Kultura, Festak eta Gazteria batzordeko aktan gai honi buruzko azalpenak ematen dira, bekak jasoko dituztenen izen eta dagozkien kopuruekin eta bertan, beka horiek 2018ko aurrekontuaren kontra joango direla esaten da. Ez da kontuan hartu akordioak balioa izateko, akordio hori organo eskudunak hartu behar duela eta Udalarentzako gastua baldin badauka, nahikoa kreditu eta egokia izan behar duela, dagokion fiskalizazioarekin.

B) APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

1.- 21/2003 Foru Arauak, 40. artikuluan, besteak beste, esaten du:

40. artikulua. Gastuaren gauzatzearen faseak.

1. Aurrekontuko kredituak egoera hauetako batean egon daitezke:



- a) Kreditu erabilgarriak.
- b) Erabili gabeko kreditu atxikiak.
- c) Kreditu ez-erabilgarriak.
- d) Kreditu erabiliak.

Printzipioz, gastuen aurrekontuan edo haren aldaketetan onartuta dauden kreditu guztiak erabilgarritzat hartzen dira. Egoera horretatik aurrera, aurrekontu kredituek har ditzaketen beste hiru egoeretako batean gera daitezke, hau da, edo atxikiak edo ez-erabilgarriak, edo, bestela, gastu bat baimendu daiteke, eta, horrela, gastua exekutatzeko prozedura abiatzen da.

Kreditu atxikipena egiten denean, erabilgarri dagoen kreditu bat atxikita eta erabiltzeko moduan geratzen da, ziurtatuta utzi baita badagoela behar besteko kreditua kopuru jakineko gastu edo transferentzia bat baimentzeko. Zenbateko bereko kopuru bat erreserbatzen da gastu edo transferentzia horretarako.

Kreditu baten ez-erabilgarritasuna gertatzen da aurrekontuko partida batek duen kredituaren saldo osoa edo haren zati bat ibilgetzen denean, hau da, hura ezin dela erabili deklaritzen denean.

Ez-erabilgarritasunaren deklarazioak ez du deuseztatuko kreditua, baina ez-erabilgarritzat hartutako saldoaren kargura ezin izango da baimendu inolako gastu edo transferentziarik, eta haren zenbatekoa ezingo da txertatu hurrengo ekitaldiko aurrekontuan.

Kredituen ez-erabilgarritasuna deklaratzeari eta haiek berriro erabilgarritzat jotzea entitateko Osoko Bilkurari dagokio.

2. Gastuen aurrekontua kudeatzeko garaian, fase hauek izango dira:

- a) Gastua baimentzea.
- b) Gastua xedatzea edo konprometitzea.
- c) Obligazioa onartzea.
- d) Ordainketa agintzea.
- e) Ordainketa egitea.

Gastua baimentzeko egintzan, erabakitzen da zenbateko jakinekoa edo gutxi gorabeherakoa den gastu bat egitea kreditu jakin baten kargura, eta, horretarako, kreditu hori erreserbatzen da, bere osoan edo zati batean.

Gastua xedatzeko edo konprometitzeko egintzan, erabakitzen da, legez ezarritako tramiteak bete ondoren, lehendik baimendutako gastuak zehaztuta dagoen



TOLOSAKO
UDALA

zenbatekoan egitea.

Obligazioa onartzeko eta likidatzeko egintzan, adierazten da entitatearen aurka badagoela kreditu exigigarri bat, baimendutako eta konprometitutako gastu batetik ondorioztatzen dena.

Ordainketa agintzen denean, arduradunak ordainketa-agindu bat ematen du obligazioa onartuta daukan entitateko diruzaintzaren aurka».

2.- 21/2003 Foru Arauak, 45. artikuluan, esaten du:

45. artikulua. Erantzukizunak.

Gastu eta ordainketen agintzaileek eurek, beti, eta toki erakundeetako kontuhartzaileek idatzia bidegabeak direla ohartarazten ez badute, baimentzen dituzten gastuen erantzukizuna izango dute, bai eta nahikoa krediturik ez dagoela aintzatetsi, likidatu edo ordaintzen dituzten betebeharrengatik ere.

3.-21/2003 Foru Arauak 67. artikuluan, besteak beste, esaten du:

67.artikulua. Legezketasunaren kontrola

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, betiere haiek eskubide eta betebeharr ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek esku-hartuko ditu:

a) *Eskubideak edo betebeharr ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.*

b) *Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.*



4.- 21/2003 Foru Arauak 70. artikuluan, besteak beste, esaten du:

70. artikulua. Ingerak (Erreparoa)

1.- Kontu-hartze eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebatzen den arte, betiere honelakoetan gertatzen denean:

- a) Oinarria kredituaren askiezintasunaren edo proposatutakoaren ezegokitasunean datzanean.
- b) Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean.
- c) Espedientearen funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean.
- d) Ingera obra, hornidura, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik sortzen denean.

4.- Eragozpenak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, toki entitateko lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebazpen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

Aurrekoa eragotzi gabe, desadostasuna dagoenean, toki entitateko lehendakariak txostena egiteko eskatu ahal izango dio Gipuzkoako Foru Aldundiko kontrol organoari, erregelamenduz jasotzen den prozedurari jarraituz

6.- Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio Udalbatzarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru sarreren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai zerrendan.

Toki entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du Udalbatzarrean edo organo baliokidean.

7.- Kontu-hartzaitzako organoak, toki entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak eta Udalbatzarrak edo organo baliokideak



TOLOSAKO
UDALA

hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, toki entitatearen justifikazio txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio».

C) ONDORIOAK

Gastu hauek egiteko konpromisoak lege ezarritako tramiteak jarraitu gabe hartu dira. Beka hauek emateko konprometitu zen momentuan, ez zegoen kreditu egoki eta nahikorik.

Aipatu behar da, espedientean egiaztatzen dela onuradunek haien konpromisoak eta Udalak eskatutako baldintzak bete dituztela.

Hori dela eta, nahiz eta tramitazioa ez zen egokia izan, proposatzen dut planteatutako kopuruak onuradunei ordaintzea, beti ere datorren ikasturterako Beka hauek Diru-laguntzako Ordenantza baten bidez arautzen badira eta prozedura egoki bat jarraitzen bada.

Beraz, 21/2003 Foru Arauak bere 70. artikuluan xedatutakoari jarraituz INGERA EDO ERREPARO LEGALA egiten dut. Honek espedientearen izapidetzea etengo du harik eta ebazten ez den arte.

Erreparoa ukitzen duen organoa berarekin ados ez badago, lehendakariak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

Dena den, kasu honetan, Osoko Bilkurari dagokio erreparoa honi ebazpen bat ematea arrazoi hauengatik:

- Kredituaren egokitasun eta urritasun faltagatik eta*
- 2017ari dagokion gastu-konpromisoa delako.*

Tolosa, 2018ko irailaren 24a.”



TOLOSAKO
UDALA

UDAL IDAZKARIAREN LEGE-TXOSTENA

“GAIA: GAZTE INFORMAZIO PROGRAMA. INFORMAZIO ANTENAK 2017-2018

Tolosako udaleko Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuak, azken urte hauetan “Gazte Informazio Programa-Informazio Antenak” ekimena sustatu du, gazteentzat interesgarria izan daitekeen informazioa zabaltzeko helburuarekin. Ekimen honen bitartez eta hautaketa jardunbide bat eraman ondoren, gazteek beraiek hartzen dute bere gain informazioa lantzeko eta zabaltzeko ardura. Azkeneko kanpaina 2017ko irailan hasi zen, eta 2018ko ekainean amaitu da, eta 2018ko aurrekontuan 3.200 €.tako zuzkidura zuen.

Ohiko eran, ekimen hau aurrekontuko 2. kapitulutik ordaindu izan da, zerbitzu kontratu txikiaren trataera emanez. Hala ere, 2018ko uztailean, Kultura, Festak eta Gazteria Departamentuak kontratazio espedientea udaleko Kontuhartzailtzan aurkeztu ondoren, egiaztatu da egitasmo honen bidez ordaindutako kopuruak ez zirela kontratu baten ordainketak, diru laguntzak edo bekak baizik. Udal Kontuhartzaileak egindako txostenean, 2018ko irailaren 24n, prozeduran izandako akatsak jaso dira, baino, bestaldetik, Informazio Antenen bidez informazioa eman dela, eta onuradunek bere betebeharrak bete dituztela egiaztatu da ere.

Horretaz gain, Kultura, Festak eta Gazteriako Departamentuak Gazteria arloan Diru laguntzak arautzen dituen Ordenantza Berezia aldatzeko proposamena idatzi ondoren, udalbatza plenoaren aurrean aurkeztuko da hasierako onespena jaso dezala, 2018ko irailaren 25eko bilkuran. Era honetan, Informazio Antenak egitasmoa diru laguntzaren tratamendua izango du eta Aurrekontuaren 4. kapituluaren jasoko da beharrezkoa den zuzkidura. Ordenantzaren aldaketa jasotzen duen testuak, “Informazio Antenak” ekimena beka gisa arautzeko oinarriak jaso ditu, 38/2003 Lege Orokorrak, Diru laguntzak arautzen dituenak, xedaturiko baldintzak kontuan hartuz. Beraz, orain arteko jardunbideak legea bere ez arren, zuzentzeko neurriak hartu dira, eta datozen urtetako ekimenak bat etorriko dira diru laguntzak arautzen dituen Lege Orokorrekin.

Bestaldetik, Idazkari honen aburuz, 2017-2018 ekitaldiari dagozkin ordainketak ordaindu behar dira, beharrezkoa den aurrekontu aldaketa izapidetu ondoren. Izan ere, udal honek diru kopuru baltzuk ordaintzeko konpromisoa hartu zuen, hautaketa-jardunbidea garatu zuen, eta aukeratutako interesatuek udalak eskaturiko baldintzak bete dituzte, Gazteria Departamentuko Teknikariak emandako informazioaren arabera. Hots, udalak ez balitu ordainduko agindutako kopuruak, arrazoitik gabeko aberastea izango luke. Adibide moduan, Epaimahai gorenak 2000-10-16an emandako sententzia aipatzen da: “...Todos estos motivos (...) fundados en la inalterabilidad de los contratos administrativos una vez celebrados, salvo que la



TOLOSAKO
UDALA

*Administración contratante autorice su modificación, deben ceder ante la doctrina jurisprudencial que aplica a los contratos administrativos como corrección al postulado de su inalterabilidad, el **principio general del derecho que prohíbe el enriquecimiento injusto o sin causa**. Printzipio hau ez da soilik ematen kontratazioaren arloan, baizik eta administrazioak arrazoirik eta kontraprestaziorik gabe onura bat jasotzen duen kasu guztietan.*

Beraz, txosten honetan aipaturiko kontuan hartuz, Idazkari honek "Gazte Informazio Programa-Informazio Antenak" egitasmoaren 2017/2018 epealdiko onuradunak ordaintzearen aldeko txostena aurkezten du, beti ere Gazteria arloko Ordenantzaren aldaketarekin lotuta."

Jarraian, Udal teknikarien txostenak aztertu eta kontutan izanik Udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman diola, Tolosan, irabazi-asmorik gabeko gazte elkarten edo elkartu gabeko gazteen ekimenak sustatzeko diru-laguntzak emateko ordenantza bereziaren aldaketari, 5/2018 lege-ingiraren altxaketaren onarpenaren proposamena bozketara jarri da.

Osoko Bilkuraren bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Lore Agirre Zipitria, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 5/2018 lege-ingiraren altxaketa.

13 1768/2018 (11/2018 kreditu gehigarria) eta 1769/2018 (12/2018 kreditu transferentzia) dekretuen jakinarazpena. **13. Notificación de los decretos de Alcaldía 1768/2018 (crédito adicional 11/2018) y 1769/2018 (transferencia de crédito 12/2018).**

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia (Ogasun batzordeburua): "Hemengo datu batzuk lehen aipatu izan ditut diru-laguntzaren eranskinaren aldaketaren puntuan. Hamaikagarren kreditu aldaketa gehigarrien modalitatekoa da. Erabili ditugun 73.804 euro hauen



banaketa honakoa da: Ingurumen departamentutik landa eremuko bideetan desbrozeak egiteko 24.200€ jarri ditugu. Brigadako materialaren erosketarako, 2.110€. Lehen aipatu bezala kanpoan euskara ikasten ari direnentzat egokitu ditugu beste 23.000 € eta errotoluak euskeratzeko 2.000€. Hiltegiako Mankomunitaterako ekarpena guk aurreikusitakoaren iristen ez zelako, beste 2.396 jarri behar izan dira. Bertsozale elkarteak eta errefortzu ikastetxeak, lehen esandakoak, alde batetik, 28.300€ eta errefortzu ikastetxeetan 12.798€. Hamabigarren kreditu aldaketa, berriz, transferentzi modalitateakoa da. Eskaera jaso genuen Gazteri departamentutik Erasmus plus proiektua aurreikusita zegoelako bigarren kapituluan eta askoz hobe ikusten zen kokatuta laugarrenean. Horretarako bigarren kapitulutik laugarrena pasa ziren 2.500 € horiek.”

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO IRAILAREN 19KO IRIZPENA.

Kontuhartzaileak 2018ko aurrekontuari dagozkion 11. eta 12. kreditu-aldaketarako espedienteen kontu eman du.

Hamaikagarren espedientea kreditu gehigarriaren modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak honako hauek dira:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	24.200,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	47.494,00
6	INBERTSIO ERREALAK	2.110,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		73.804,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	73.804,00
GUZTIRA		73.804,00



Hamabigarren espedientea kreditu transferentziaren modalitatean egin da eta jasotzen dituen partidak honako hauek dira:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	65.768,00	2.500,00	63.268,00
	GUZTIRA	65.768,00	2.500,00	63.268,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	14.500,00	2.500,00	17.000,00
	GUZTIRA	14.500,00	2.500,00	17.000,00

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

14. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (2018/1.359-2018/1.654).

14. Notificación de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 de julio al 31 de agosto de 2018 (2018/1.359-2018/1.654).

Alkatetzak 2018ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean (2018/1.359-2018/1.1654) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.



TOLOSAKO
UDALA

15. EH BILDU taldearen izendapen hauen berri ematea:
Batzorde informatiboetako ordezkariak eta ordezkoak.

15. Notificación de los siguientes nombramientos de EH BILDU:
Representantes de las comisiones informativas y sus suplentes.

Batzorde informatiboetako kideen aldaketa hauen berri eman zaie udalbatzarkideei:

Batzorde informatiboetako kideak eta ordezkoak

Batzordeetako EH Bilduren ordezkariak eta horien ordezkoak

1. Berdintasuna
 - Onintza Lasa Arteaga
 - Kristina Pelaez Errazkin
2. Hirigintza eta azpiegiturak
 - Ibai Iriarte San Vicente
 - Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
3. Hizkuntza Politika eta Hezkuntza
 - Inaki Irazabalbeitia Fernandez
 - Kristina Pelaez Errazkin
4. Gizarte Politika
 - Onintza Lasa Arteaga
 - Kristina Pelaez Errazkin
5. Kultura, Festak eta Gazteria
 - Igor Ezenarro Balda
 - Kristina Pelaez Errazkin

Halaber, hainbat zinegotziren ordezkoak izendatzen dira. Segidan zehazten dira.

1. Ingurumena, Auzoak Obrak eta Zerbitzuak

- Lore Agirre Zipitriaren ordezkoa Iñaki Irazabalbeitia Fernandez

2. Merkataritza, Feriak eta Turismoa

- Lore Agirre Zipitriaren ordezkoa Kristina Pelaez Errazkin

3. Diru Kontuak eta Ogasuna

- Lore Agirre Zipitriaren ordezkoa Kristina Pelaez Errazkin
- Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez ordezkoa Kristina Pelaez Errazkin

4. Giza Baliabideak eta Udal Antolaketa



TOLOSAKO
UDALA

- Lore Agirre Zipitriaren ordezkoa Kristina Pelaez Errazkin
- Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandezen ordezkoa Kristina Pelaez Errazkin

5. Kirola

- Onintza Lasa Arteagaren ordezkoa Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

6. Gizarte Politika

- Onintza Lasa Arteagaren ordezkoa Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.

16. Galderak eta eskaerak.

16. Ruegos y preguntas.

Partehartzeak:

... Cristian Fernandez Susin (Kirol batzordeburua): *“Zorionak Eukeneri. Eukene Larrarte txirrindulari tolosarrari zoriondu nahi diot. Eukenek Valentzian izandako Espainiako Pistako txirrindulari txapelketan lau domina lortu ditu, hiru urre eta zilarrezkoa bat. Nire partetik eta denok partetik: Zorionak Eukene eta segi horrela oraina eta etorkizuna zureak direlako.”*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu) : *“Jada hasi da Euskaltzaindiaren 100 urteurrenaren ospakizuna, datorren astean Arantzazun kongresuarekin hasiko dira. Euskara batuak 50 urte bete ditu aurten ofizialki, data jarri zitzaionetik. Iruditzen zait Udalbatza honek idatzi beharko liokeela Euskaltzaindiari zorionak ematen 100 urte betetzeagatik, eskertuz euskararen normalizaziora arte, 100 urte hauetan egin duen lana eta espero dezakegula etorkizunean horrela jarraitzea. Bestetik, iruditzen zaigu Tolosako udalak proposatu beharko liokeela Euskaltzaindiari egiten dituen horietako bilera bat datorren urtean Tolosan izan dadin. Izan ere, badago nahiko arrazoi Euskaltzaindiak Tolosan bilera bat egiteko, euskararen inguruan Tolosak izan duen izaeratik eta baita ere herri honen leloa Tolosa euskara hiria izanik. Izan daiteke ospakizun horietako bat Euskaltzaindiak egiten duen horrelako bilera bat Tolosan egitea. Agian, Pleno Areto honetan bertan.”*

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Urtearen bigarren seihilabetean sartu garen honetan jakin nahi genuke KABIAREN egoera nola dagoen, lurreamendi KABIAn integratzearen egoera nola dagoen. Azkenengo Juntan ez zen bestelakorik ezer aipatu baina adierazi digutenarengatik zenbait pertsonal aldaketa eman dira. Azaldu zaigunarengatik, nolabait, zuzendari eginkizunaz burutzen lehen Gizarte Langile zegoena, gero Gizarte Langile eta Koordinatzaile zegoena, orain, badirudi, Zuzendari Gizarte Langile eta Koordinatzaile lanak burutzen ditu horrek suposatzen duenarekin. Ez dakit egoera zein den eta horixe da galdetu nahi nizuena.”*



- ... Alkatea: *Badakizue Batzar Nagusietan onartu zen egutegiaren arabera KABIARA lurramendi pasako litzatekeela urte amaieran. Momentu honetan, udal barruan, KABIAREN traspaso hori egokien ahal izateko, bilerak egiten gaude Muñoa Fundazioarekin segregazioa egin behar delako ondarea transmititzeko KABIARA gero beraiek zerbitzua kudeatu ahal izateko. Langileagoari dagokionez, ez dira bilera gehiago egon gai konkretu horrekin. Bai KABIAK daukala bere antolaketa eta egia da Zuzendaria lurreamendiko zuzendaria fisikoki lurramendin egon beharrean planteatzen dute Donostian egotea. Beste guztietan bezala eta noski antolaketa nolabait aldatuko litzateke. Lehen, hitzarmen zirriborroa jarri zutenean mahai gainean nolabaiteko aipamen bat egin zuten, Juntan pasa genuen dokumentu horretan. Hortik haratago ez dugu ezer aurreratu. Modu guztietara aurrerapenak egiten joaten diren heinean joango gara Juntan komentatzen.*
- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *“Uste dut nahiko aurrerapen izan daitekeela jada Zuzendaria fisikoki hara mugitzea. Izan ere funtzionamendu aldetik zuzendari funtzioak momentu honetan badirudi beste batek hartu dituela. Horrela funtzionatzen ari dira egunerokotasunean, badaki zuk baietz, Olatz. Ez egoteak, figura hori, zeinek betetzen ditu funtzio horiek?, lan eginkizunak orduan nork egiten ditu? Azkenean han egoteak!. Era berean administrariei ere proposatu omen zaie leku aldaketa horiek. Uste dut mugimendu nahiko garrantzitsuak direla antolaketan eragiten dutenak. Pertsonal batzorde batean, lurramendin edo Juntan aipatzekoak direnak.”*
- ... Alkatea: *“Bai, baina gauzatu aurretik. Horregatik pasako dira Pertsonal batzordetik edo Juntatik. Oraindik ez dira gauzatu. Zuzendaria hemen dago lurramendin orain arte bezala.”*
- ... Iñaki Irazabalbeita Fernandez (EHBildu) *“Oker ez banago ekaineko osoko bilkuran autobus hiribusaren eztabaidan planteatu genuen komenigarria izan zitekeela Udalak autobusaren kudeaketa zuzena hartzeari buruzko txosten bat egitea. Memoria flakua ez badaukat erantzun zitzaien baiezkoa, udal medioekin egingo zela eta iraila bezalako data bat planteatu zen . Gaur, irailak 25 egiten ditu eta jakin nahiko nuke zertan dagoen Udal gobernuak ekaineko plenoan hartutako konpromisoa.”*
- ... Alkatea: *“Konpromisoa mantentzen dugu baina ez du denborarik eman, oraindik txostena ez dago eginda. Dagoenean ekarriko dugu.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Eperik aurreikusten al zaion jakin nuke txosten horri. Uste dut urtebete baino gutxiago falta dela lehiaketa berri bat ateratzeko, Europara bidalita dago jada dokumentazioa. Edozein erabaki hartu aurretik, atzera bueltarik izango ez duen edozein erabakia hartu aurretik, bai komeni izango litzakeela elementuak izatea mahai gainean erabaki hori hartu ahala izateko. Gehiegi luzatzen bada epeak ez ditugu beteko”.*



TOLOSAKO
UDALA

... Alkatea: *"Ez dakit galdera hori erantzuteko moduan gauden. Begoña eta Ainhoa zuek esan beharko duzue".*

... Begoña Garmendia Vazquez, Udal Idazkaria: *"Momentu honetan, hementxe, ez naiz gai erantzun bat emateko, begiratu egin beharko nuke. Gai pottolo batzuk dauzkagu mahai gainean, Enplegu Plana tarteko. Horiek despejaten ditugunean aukera izango dugu gai honi heltzeko."*

... Alkatea: *"Modu guztietara esan dezakedana da ez dugula txosten hori egin gabe utziko gero atzera bueltarik ez duen erabakirik hartzeko punturaino iritsi arte. Hori bai, esan dezaket."*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *Ados, horrek konpromiso bat eskatuko luke eta pentsatzea, agian, kanpoko baten bati txosten hori egiteko eskatzearen aukera."*

... Alkatea: *"Konforme"*

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *"Galdera egingo dut Merkataritza, Turismo eta FERIA batzordean eta baita Gazteria, Kultura eta Festetako batzordean ere, egindako galderari emandako erantzunak ez zigulako bat ere asetu. Udalak antolatzen dituen edo Zerkausian ematen diren bazkari edo ekimenetan, azken aldi honetan, hasi Festak eta Kulturak antolatzen duen Musikerrian eta, azkenengoa, Garagardo festan Udalak berak dituen komunak jarri beharrean jartzen ari dira beste komun klase bat. Jartzen direnak ez dute ematen eman beharreko zerbitzua, txikiak dira, argirik gabe. Ez dute ematen Udalak dituen komunen zerbitzua, gainera kostua handigoa da. Izan ere, Udalarenak direnen kostua da ekarri, eman eta instalazio txiki bat egitea da. Garagardo Azokan lau jarri ziren eta kostua, gainera handiagoa. Nire galdera izan zen aldaketa honen arrazoia. Bai batean, bai beste batzordean jasotako erantzunak ez ziren izan oso garbiak, irisgarritasuna ere aipatu zen ..., baina jarritakoak ere ez zuen betetzen. Gainera, erantzun tartean, erabakia udal langile baten gainean jarri zen momentu batean... batzordean jaso ez nuen erantzuna hemen, plenoan, jaso nahi nuke."*

... Alkatea: *"Arrazoia bakarra da homologatu gabe daudela teknikarien esanetan. Bide batez, aprobetxatzen komunitaz ari garela, eremu horretan bihar Kultur Etxeko komun berriaren obra haste da. "*

... Igor Ezenarro Balda (EHBildu): *"Homologatua ez badaude homologatu egin beharko dira. Udaletik ari gara baimenak ematen hainbat gauzetarako baina gero zerbitzuak*



TOLOSAKO
UDALA

ez ditugu eskaintzen: Musikerrian, bertaratu eta antolatzaileen artean bildu ziren 500 pertsonentzat jarri ziren komonak ez ziren aproposak. Garagardo Festan ere, ostegunetik igandera bitartean, gutxienez, 5.000 pertsona pasa ziren. Udalak baimenak ematen badu horrelakoak egiteko zerbitzuak parekoak izan behar dute. Ezin da lau komun txiki eta argiri gabeko horiekin pareko zerbitzua eman. Udalekoak diren komunak argiak dute eta ez badira homologatuak zerbait egin beharko da.”

... Alkatea: “Aztertuko egin beharko da homologagarriak diren edo ez. Modu guztietara, Udalak jartzen dituen komunaz gain, paseoan bestea badago eta TAKekoak ere irekitzen dira. Zehaztu bai, aipatu dudan Kultur Etxeko hori ez dagoela bideratuta Zerkausion egiten diren ekitaldietarako baizik eta zerbitzu publiko orokor baterako.”

Besterik gabe, 20:40an, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA